

# Aldatu gara, baina ez horrenbeste

*MAURICE Herzogek zioen, orain dela ez asko, mendizalearen etsairik handiena bere emaztea zela. Ba, beno, otsaila joan zaigu eta utzi digu, elurte izugarrietatik aparte, emakume bat Euskal Mendizale-Federazioaren gidari.*

*Ez zen lehen aldiz hauteskundeak egiten zirena, zer esanik ez, baina bai izan da "primera bat" nolabait, mendizaleen argotean esaten dugun bezala. Lehen aldiz izan dira hautagai biak irizpen publikoaren menpera jarriak, eta ez taldeenera soilik, baizik eta euskal kirol gaurkotasuna jarraitzen duten guztienera ere bai.*

*Esan beharrik ez dago EMFa indarturik atera dela hauteskunde-prozesu honetatik. Mendizale-taldeen partaidetza handia, eta teknikarien eta kirolzaleena ere, otsailaren 12an Elgetan, sintomarik argiena da euskal mendizale-erkidegoak bere borondatea aktiboki erakutsi nahi izan duena. Jasotako bermeak derrigortu egiten digu konfidantza horri erantzunkizunez erantzutera eta horixe izango da izan ere gure konpromizua hurrengo lau urteotan.*

*Nire erantzunkizun historikoa kontutan dudala, niretzat etxe maitagarria den Pyrenaica honetan EMFaren aurreko presidenteek idatzitako agurrak arretaz irakurri ditut. Eta Antón García Albizuren, Juan Bautista Maizen, Jose Mª Leturiaren, Pako Iriondoren eta Antxon Bandresen editorialak errepasatuz, argi geratzen da urte hauetan aldatu garela, baina ez horrenbeste.*

*Beren epealdietan, presidente guztiek aldaketa eta oztopo garrantzitsuak abordatu zituzten, euskal mendizaletasunaren lorpen eta porrot handiak bizi zituzten, eta ziurgabetasunik gabeko inguru politikoekin bizi behar izan ziren. Kontutan izanda hemen mendira joatea gure nortasun kulturalaren partea dela, presidente guztien helburua izan da mendizaletasunak herri honetan merezi duen gizarte-dimentsioa bultzatzea.*

*Gaurko mundu honetan, bizitza agian konplexuagoa da. Azken urteotan, Antxon Bandresen eskuetatik, gure Federazioak fronte asko zabaldu du erakunde- zein kirol-eremuetan. Apurka-apurka, atzean geratzen ari dira eztabaida haiek: zerk banatzen dituen mendizaleak eta eskalatzaileak, kirolzaleak eta taldeak eta gizonezkoak eta emakumezkoak. Nire gogoa da mendizale-bizitzaren zikloak bere agerbide guztietan jarrai dezan, batuko gaituen ezberdintasunean elkarrekin bizitzen ikas dezagun eta pertsona bakoitza mendira joan dadin ahal duenean eta ahal duen bezala.*

# Hemos cambiado, pero no tanto

DECIA Maurice Herzog, no hace tantos años, que el peor enemigo de un montañero era su mujer. Pues bien, el mes de febrero se ha marchado dejándonos unas espléndidas nevadas y una mujer elegida al frente de la Euskal Mendizale Federazioa.

No era la primera vez que se celebraban elecciones, evidentemente, pero en cierta manera sí que ha sido "una primera", como decimos en el argot montañero. Por primera vez los dos candidatos han sido sometidos al juicio público, no sólo de los clubs, sino también de todos aquéllos que siguen la actualidad deportiva vasca.

Sin duda la EMF ha salido fortalecida de este proceso electoral. La alta participación de los clubs, los técnicos y los deportistas, el 12 de febrero en Elgeta, es el síntoma claro de que la comunidad montañera vasca ha querido expresar su voluntad de forma activa. El amplio apoyo recibido nos obliga a responder con responsabilidad a esta confianza y ése será nuestro compromiso en los próximos cuatro años.

Desde la responsabilidad histórica que me acompaña, he leído con atención los saludos que anteriores presidentes de la EMF han escrito en esta querida casa que para mí es Pyrenaica. Y repasando los editoriales de Antón García Albizu, Juan Bautista Maiz, Jose Mª Leturia, Paco Iriondo y Antxon Bandres, queda patente que en estos años hemos cambiado, pero no tanto.

En cada una de sus etapas, todos los presidentes abordaron importantes cambios y dificultades, vivieron grandes logros y fracasos del montañismo vasco, y convivieron con entornos políticos llenos de incertidumbre. Todos ellos tuvieron como objetivo promocionar la dimensión social que el montañismo se merece en un país en el que ir al monte, es parte de nuestra identidad cultural.

En este mundo de hoy, quizás la vida es algo más compleja. En los últimos años, de la mano de Antxon Bandres, nuestra Federación ha abierto muchos frentes en el ámbito institucional y deportivo. Poco a poco, van quedando atrás las viejas discusiones sobre lo que separa a los montañeros de los escaladores, a los deportistas de los clubs y a los hombres de las mujeres. Es mi deseo que el ciclo de la vida montañera continúe en todas sus manifestaciones, que aprendamos a convivir en una diversidad que unifique y que cada persona vaya al monte cuando y como tenga oportunidad de hacerlo.

**Arantza Jausoro Marugan**
**Presidenta de Euskal Mendizale Federazioa**